


Maiatzaren 21eko greba

HIRU, ESK, EILAS eta EHNEko ordezkarien iritzia

■ ■ ■ Datorren ostiraleko lanuztearen lelo nagusia 35 orduko lan astea den arren, sakonean badira bestelako nekazaritzako ekoizpen eskubideen banaketa bidezkoagoa galdegingo du. ■ ■ ■ EILASekoek greba



MIREN SAEZ

Modesto Garcia • HIRU-KO KIDEA •

«Garraioan lana bana daiteke, baina prezio duinak jarrita»

■ Garraiolaria autonomoek zergatik egin duzue bat 35 orduen aldeko grebarekin?

Garraiolariek beti ikusi dugu gainontzeko sektoreekin elkartasunean aritu beharra. Guk besteen beharra dugu, eta gainontzekoek ere gure beharra badute. Greba honen aldarrikapena aberastasuna eta enplegua banatzea da, eta guztiz bidezkoa iruditzen zaigu. Agian 35 orduak ez dute eragin zuzenik gure lanbidean, baina guztiok lan gutxiago egitea aldarrikapen zuzena da, guztiok hobeki bizitzea eta errepideetan ere hobeki ibiltzea ahalbidetu dezakeelako neurri horrek. Gu ez gaudela gizartetik kanpo, gure etxeetara iristen da lanaren eta aberastasunaren banaketaren beharra.

■ Garraiolaria autonomo batek zenbat ordu sartzen ditu astean?

Bederatzi orduz gida dezakegu. Lau ordu eta erdiz gidatuta, 45 minutuko atsedena egin behar dugu.

■ Hori da legeak dioena. Baina, benetan, kamiolari autonomo batek zenbat orduz aritzen da lanean?

Konpromisoak, presioak, tarifak,

betebeharrak ikaragarritzakoak dira gaur egun garraiolaria autonomo batentzat. Horregatik, askotan ez duzu errespetatzen ordutegi hori.

■ Zuen alorrean, zer egin daiteke lana eta aberastasuna banatzeko? Garraiolaria izateko baimen gehiago ematea zer iruditzen zaizu?

Zaila da. Eskariak eta eskaintzak agintzen dute. Banatzea badago, baina prezio duinak jarritik gero. Kamiolariena alor marginala da. Garai onak izan dira, baina bizi-baldintza gogorak pairatuta.

Horrezaz gainera, inbertsioak eta arrisku ekonomikoak kontrolatzea zaila da. Alorraren birmoldaketa bidezkoa eskatzen dugu, egun

dauden garraiolariek bizimodu duina edukitzeko.

■ Hori guztia lortzeko, greba tresna egokia al da?

Langileon tresna bakarra da greba. Hilaren 21eko lanuzte zibikoa izango da, dudarik gabe. Guk kontsigna zabaldu dugu garraiolarien artean, eta norberak ahal duen moduan sustengatuko du 35 orduen eta soldata sozialaren aldeko greba.

Garraio baimenak

■ ■ ■ «Enplegua eta aberastasuna banatzea da aldarrikapena, eta hori guri bidezko iruditzen zaigu»

Angel Abalde • ESK-KO ORDEZKARIA •

«Greba hordagoa da, baina jokoak jarraitu egingo du»

■ 35 orduko lan asteak enplegu berririk sortuko al du?

Patronalak dio orduak urrituta ezin dela lanposturik sortu, eta, neurri batean, arrazoi du. Dena den, ezin liteke esan 35 orduak ez dutela enplegurik sortzen lagunduko. Enpleguak sortzeko, lanorduak urritzeaz gainera, bestelako baldintza batzuk ere bete behar dira. Batetik, egutegi malgutasuna mugatu egin behar da. Bestetik, lanorduak urritzearen hutsuneak lanpostu berriekin bete behar dira eta ez teknologiarekin edo kapital inbertsioekin.

Bestalde, historian langile mugimenduaren aldarrikapenetako bat lan astearen laburpena izan da, eta hori garbi azaldu behar diogu gizarte osoari. Ekoizpen gaitasuna handia izanik, langileon bizi-baldintzak hobetzeko neurria da lan astearen murrizketa. Produktibitatea gizabidez banatzeko modua ere bada lanorduak urritzea.

■ Maiatzaren 21eko lanuztea langabezia daudenei elkartasuna adierazteko mobilizazioa da. Hala ere, jende askok uste du 35 orduko lan astea lanean daudenen onerako baino ez dela. Zer deritzozu?

Berehalako ondorioa enplegua

dutenen onura da. Baina neurri horren eragina epe luzean aztertu behar da. 35 orduak lan baldintza duinagoak sortuko dituzte eta lan merkatutik kanpo dagoen jendearen eta langileen artean zubiak sortuko dituzte. Lan astea urritzeko eskaerarekin batera lan ordu estrarik ez egiteko, bosgarren txandarik ez onartzeko, bi soldata mailaketa ez onartzeko eskaerak datoz. Hori dena 35 orduen aldarrikapenarekin doa; bestela, lan aste laburra eskaera hutsala izan liteke.

■ Eta soldata sozialaren aldarrikapena...

Soldata soziala prestazio gisa galdegin dute maiz sindikatuek. Guretzat, soldata soziala ez dago lan merkatuarekin eta


langilearen egoera jakin batekin lotuta, giza eskubideekin baizik. Lan merkatuak porrot egin du, baina jendeak duintasunez bizitzeko gaur egun ez dauka zertan ekoizpen sistemari lotuta egon.

■ Eta greba ostein, zer?

Greba hordago bat da, baina jokoak jarraitu egingo du. Gakoa patrolari eta gobernuari gure mobilizazio ahalmena azaltzea da. Hortik aurrera lanean jarraituko dugu negoziatzioa bultzatuz, gizarte mugimenduekin mobilizazioa eraginez eta enpresetan borrokatuz.

Soldata soziala

■ ■ ■ «Soldata soziala ez dago lotuta lan merkatuarekin eta langilearen egoerarekin, giza eskubideekin baizik»



EDURNE KOCH